

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburua garraiatzeko zailtasunak dituzten pertsonak laguntzea da, batez ere adinekoak. Askok ezin dute gidatu eta garraio publikoa erabiltzea zaila edo deserosoa da. Horregatik, irtenbide merke eta praktiko bat eskaintzen dugu: aplikazio bat, non pertsona batek bere autoa eskain dezake beste pertsona batzuk eramateko, edo bidai nahi dutenek beste baten autoa erabil dezaketen. Sistemak bidaiak koordinatzen ditu, leku berera doazen pertsonak elkartuz, eta horrela taxi edo garraio publikoaren antzeko zerbitzu bat eskaintzen dugu, baina merkeagoa eta pertsonalagoa.

Gure aplikazioak ez du bakarrik garraioa eskaintzen; pertsonen arteko harremanak ere sustatzen ditu. Bidaiak partekatzeak aukera ematen du aurretik ezagutzen ez ziren pertsonak ezagutzeko eta komunitate harremanak sortzeko. Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, auto eta gidari egokiak izatea zaintzen dugu, eta, nahiz eta taxi batek eskaintzen duen kalitate osoa beti ez izan, garraio publikoarekin alderatuta bidaia erosoagoa eta pertsonalagoa eskaintzen dugu.

Agureak teknologia eta gailu berriekin zailtasunak dituzte, beraz adimen artifizialaren laguntzarekin aplikazioa erabiltzeko erraztasunak jarriko ditugu. Gure aplikazioa adimen artifizialeko laguntzaile bat izango du eta behar izatekotan ahotsarekin funtzionatzen duen adimen artifiziala ere. Era horretan teknologia berriekin zailtasunak dituztenak gure aplikazioa erabiltzeko ez dute arazorik izango.

Gure balio nagusiak bi motatakoak dira:

Kuantitatiboa: taxi edo garraio publikoarekin alderatuta prezio merkeagoa eskaintzen dugu.

Kualitatiboa: bidaia erosoak, gidari fidagarriak eta auto egokiak bermatzen ditugu, eta pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu. Horrela, bidaia eroso, segurua eta sozialki aberatsa bihurtzen da.